

24-02-2011

Bagenituen bai sagastiak, gu mutikoak giñan garaietan, gure baserrietan. Sagarrondo zaarrak eta gazteak: danetik. Nik geure etxekoeri berri emango det. Eta besteetan ere antzeko izango ziran.

Baiña kontuz. Inoiz ez zan egiten sagarrondo bat zaarra ia ondatu zala-eta gazte bat landatu: ez orixe! Sagasti bakoitzeko sagarrondoak batera landatutakoak oi ziran. Adin berdinak. Aitonak-edo landatutakoak. Ikusten zanean sagasti onek "pot egin dik", aal zan lekuan ordezko sagasti gaztea landatuko genuen. Ori bai: egutera aldetik, aal zala. Sagasti zaararen egiturari begiratu, gaztea landatu. Leengo zaarrek ez bait zuten utsik egiten orretan.

Podaketak edo inausketak ere naiko errespetu aundiz egiten ziran. Aitaren lana izaten zan ura. Ondorengoa, zotzak sagastitik kentzea, gaztetxoan lana izaten zan, neguan.

Baita ere, sagarrondo bakoitzaren ipurdia aitzurrarekin garbitu oi zan neguan: zopizartu edo gainzotala kendu jira guztian. Eta lurra agerian zutela, pasarazi negua. Eta udaberrian, berriro estali leen kerdutakoekin; aal bazan, simaur zakar pixka bat botata.

Ori genuen sagarrondoan zaintza.

Txertaketak, etxeko zaarren baktek egin oi zituen. Bai bait zituzten beren eskarmentuak, urteen

NIKOLAS ZENDOIA

GURE SAGASTI ZAAR AIEK

Izeta bien artean, bagenuen
tolare-etxea, etxe-ordeko bat
balitz bezala, oso polita



poderioz artuak. Txukun asko jartzen zituzten brearekin menduak, arraza onekoei kenduak. Osaba Martxiel zaarrak zenbat txertatu ote zituen, beeko ezpainia luzatuta, pipa erreaz.

Onako sagar klase auek genituen orduan. Txorten-luzea: gorria eta geza. Geza eta zuria: aundia. Geza gorri-berdea: aundia. Aranburu sagarra: gozo-geza eta berdotsa. Sagar Paltsola: berde-oria eta geza, tolar-sagar ona. Merkaliña: berde-oria eta gozo-geza. Donosti sagar-gorria: gozo-geza. Txalaka: berde-oria. Lau-kantoia: gorri-oria eta gazia. Epurtera: berde-gorria eta gozo-geza. San Pedro sagarra: gorria. Agiña sagarra: berdea eta gazi-gozoa. Errezil sagarra: berdea eta gazi-gozoa. Nork ez degu ezagutzen au! Oietatik, maairako sagar onak baziran: Lau-kantoia,

Txalaka, Agiña sagarra, Errezil sagarra eta abar. Gaiñera, sagarrondo banakak genituen auek. Gutxi, baiña sakratuak.

Sagastien izenak ere gogoan dauzkat: Garrendegiko sagastia, Baraingo ordeko sagastia, Intxaur-soro sagastia, Luberriko sagastia, Aitzondoko sagastia eta Baraingo txokoko sagastia. Oietaz gain, edozein malkarretan izango genituen sagar banakak. Baserriko edaria sagardoa zalako, nunai landatzen zan sagarrondo bat edo beste.

Urrian, uso urdiñak pasatzen eta, an asiko giñan sagar biltzen, sagardo berria egiteko pozean, mutil kozkorak eta aal giñan danak otartxo bafia artuta, beste zaku batzuekin. Zaarrek ala esaten ziguten mutikooi:

—Ez ezazue jan edozein sagar.

Xoxoak zulatutakoa bakarrik. Ura zegok ondua.

Gurdi sagarra izaten zan zortzi zaku sagarrekoa. Gaiñera, noiz edo noiz, saltzeko baldin bazan gurdi sagarra, otarra aundi berezi batekin neurtzen zan zakukada. Aurrena bera bete, eta zakura ust. Izena zuen neurria. Gauzak zuzen egiten ziran.

Zaku sagarrak muturrean lotzeko, zumea erabiltzen zan. Sagastien inguruan genuen zume-landarea. Ez zuen enborrik. Dana zotz mee eta luxeak zituen. Ez ziran austen. Lokarria bezala ziran zakuak lotzeko. Leengo zaarrak ez ziran, ez, tontoak: sagastien inguruan zumea.

Tolareko sagar jotzea, iru gurdi sagarrekoa izan oi zan, gutxi gorabehera. Betiere, sagasti guztietatik bildutako sagarrarekin, sagardo berdintsua atera zedin.

Izeta bien artean, bagenuen tolar-etxea, etxe-ordeko bat balitz bezala, oso polita. Aurtean, beeko ate aundia. Barruan, beean, ezkeretik motorra; eskubitik tiña, goitik zetorren sagardoa artzeko; eta goian, saietsetik, tolar-askara zijoan leioa, matxaka aureko tranpaillura zaku sagarrak jasotzeko eta abarrerako.

Estutzeko, ardatzeko engranajetik ateratzen zan palanka luzea, iru-lau mutillek tira zezaioten, «iaup!» eta «iaup!». Lepo-zaiñak zenbat lodi ziran ikusten zan an.

Sagar jotzeak zetozenean, aste bat aurretik asiko zan aldeko aita

Joxemiel motor zaar ura martxan jartzen. Bera zan Izetako mekanikoa. Eskerrak ari! Auzotarrak ere bertara urbiltzen ziran beren sagarrak jotzera. Txandaren zai egon bearra ere izaten zan. Eta ori sagarraren onerako zan, gaiñera. Mandioan ontzen zegoen sagarrak sagardo gozoagoa izaten zuen. Sagastiko xoxoarena, beraz: ondutakoa gozoagoa.

Gurdi barrika luxea ere lotuko genuen gurdian, sagardoak tolarreko tiñatik etxeko barriketara eramateko. Unilla izeneko egurrezko askatxoa, inbutu ordekoa, gurdia koxka batean jartzen zan, galdu ez zedin. Tiñatik baldearekin artu eta unilletik pasa eta gurdi barrika betetzen genuen. Sagardo-lanak amaitzen ziran arte, gurdi ura artarako bakarrik zan. Errespetagarria, sakratua.

Bein, patsa zati bati otarrakada bat piku naastu genion. Barrikadaxo bat egiteko. Ura zan edari gozoa! Baiña ez genuen nai adiña edaterik izan sagardo gozo artatik. Inor zetorrenako edo egun jakitietarako gordea zan. Eta zenbait bisitariri, plateran basoa jarri eta emana, txukun asko, gure amak: Urdanetako apaiz luzeari, soroak urrutitik bedeinkatzen etorritakoari; estanpak banatuz eskean zetorren fraileari, Goñi medikuari, betenariari, Zarauzko hermanotako iru hermanoa (salletar) irakasleei, eta abar. Izan ere, gure etxera inguratzen ez zanik...

Aiek garai lasaia!